

Rikardo Arregi

Deia, 1977-07-13.

Joan den igandean, hilak 10, zortzi urte Rikardo Arregi hil zela.

Istripu edo akzidente batean.

Zituen kemen, erneazio eta itxaropen denak jarriak zituen lanbidean erori zen. Euskaltzaindiak Bilbo-n zuen batzar batera zijoala, Mendaro-Mutrikuko kurba batean geratu zitzaion bihotza.

Harek hasitako lanak ez dira geratu, hala ere, 1966go hiltzean agertu zioten Juan San Martin, Iñaki Beobide, Mikel Lasa eta Rikardo berak Euskaltzaindiari Alfabetatze kanpaina bat eratzeko asmoa.

Gero, Rikardo bera izan zen mugimendu berri hau aurrera eramateko ahalegin haundienak egin zituena. Kanpaina honen eragina aurrera dijoa. Batez ere gazteen artean zabaldu da; gehien bat langile eta baserritar; baita ikasle ere, batez ere udarikastaroetan.

Aurten, ikastaro hoietatik Euzkadi osoan pasako direnak 40.000 inguru izango omen dira.

Rikardo, *Zeruko Argia*-ren berpiztearen muinean egon zen, eta hau adinez eta pentsamoldez osorik ados ez zetozen beste batzuekin; nik Caracas-en irakurtzen nizekin "Nazio arteko unea" sailean idazten zituen lan burrukariak. 1965an *Europa* izeneko antoloji batean azaldu zen bere "Politika estrukturak europar alkertasunean", eta urte hontan bertan irabazi zuen lehenengo aldiz eman zen "Lauaxeta" saria. Nik beti gogoan dutan lan bat. *Zeruko Argian*, eta hil zen urte hartan bertan, agertu zen; "Borrokalari ahaztuak" zuen izena. Hor aitutzen zituen erailak izan ziren bi gizon: Martin Luther King, iparamerikarra, beltza; eta beste beltz bat, baina hau Tanzania-ko afrikar bat: Eduardo Mondlane.

Eta Rikardo Arregi-ren kexa hau zen: bat, Luther King, herri haundi batean demokrazia defenditzen zuelako, ajentzi bidez berebiziko, eta merezitako, omena egin zitzaion, eta beste beltzak, berriz, kristau aukera berdina egin harren, eta berdintsu eraila izan, ez zuen munduaren axolakaberia besterik jaso.

Nonbait izango ahal da herrien askatasun borroka hoiek, aberatsak eta pobreak, kontu berdinean hartuko dituen justizia.

Rikardo gazterik hil zen; 27 urte; bere burruka guzia herriaren eta herriko hizkuntzaren alde egin zuen.

Merezi du guk, euskaldunok, gaur gogorapen hau egitea.